

BESTELAKO KONPROMISO ZEHATZAK:

.....
.....
.....

Zaintzailea,.....
Izpta.:

GOFeko edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikaria.....
Izpta.:

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN ZUZEN-
DARI-KUDEATZAILEARI.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1.077

Arabako Biltzar Nagusiek, 2005eko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi zuten:

5/2005 FORU ARAUA, OTSAILAREN 14KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN JOKOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZE-KOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Indarrean dagoen Ekonomia Itunak, 36. artikuluan, xedatzen du jokoaren gainean ezarritako zergak arautegi autonomoko zerga itunduak direla, haietarako baimena Euskal Herrian eman behar bada. Hala ere, jarraian, aipatutako xedapenak izaera hori nabartu egiten du, adieraziz Estatuak une bakoitzean ezarritako arautegi berbera aplikatuko dela, zergapeko egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

Zerga horiek ordainarazteko eskumenari dagokionez, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 37. artikulua lurraldearengatik dagokion foru aldundiari esleitzen dio hura, baimena edo zergapeko egitatea, kasuan kasuko joko jardueraren arabera, Euskal Herrian eman behar bada edo bertan gauzatzen bada, hurrenez hurren.

Horrela, Foru Arau honek, foru erakundeek gai hau arautzeko beharrianari erantzuten dio.

Foru Arau honek, Jokoaren gaineko Zerga arautzeari heltzean, hainbat alderdi hartzen ditu kontuan, horien artean ondorengoak azpimarkatu daitezkeelarik:

a) Lurralde Historikoko erakundeen araugintza eta ordainarazpeneko eskumen eremua ezartzerakoan, kontuan hartu behar dira, alde batetik, Ekonomia Itunean ezarritakoa eta, beste aldetik, Euskal Herriaren barruan eskumen horiek esleitzeko Zerga Koordinaziorako Organoaren baitan bateratutako arauak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko funtsezko arautegia kontuan hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan joko arautzeko eskumena hari dagokio bakarrik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.35 artikuluan arabera, Kirol eta Ongintzazko Elkarrekiko Apustuak salbuetsita.

Eskumen eskusibo hori garatuz, Euskal Autonomia Elkarteak joko arautzen duten zenbait xedapen eman ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan joko arautzen duena.

c) Ekonomia Itunean eta lege arrunteko arautegian jasotzen diren jokoaren zerga-arauketaren mugak eta aurrekariak.

Aurretik esan den bezala, jokoaren gaineko zerga arautzerakoan lege arrunteko arauketa berdina aplikatu behar da, zergapeko egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

d) Jokoaren gaineko zergei buruz kontuan hartu beharreko jurisprudentzia, eta batez ere honako hauek: Konstituzio Auzitegiaren 1994ko azaroaren 10eko epaia eta Auzitegi Gorenaren 1998ko abenduaren 28koa, zeinetan, zalantzarik gabe, zerga izaera aitortzen baitzaio 16/1977 Errege Dekretu-legean araututako zorte, enbete edo zori jokoaren gaineko tasari.

OTROS COMPROMISOS ESPECÍFICOS:

.....
.....
.....

La persona cuidadora,.....
Fdo.:

El/la técnico/a del I.F.B.S. o del Servicio Social de Base.....
Fdo.:

AL DIRECTOR-GERENTE DEL INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1.077

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 14 de febrero de 2005, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 5/2005, DE 14 DE FEBRERO, POR LA QUE SE REGULA EL TRIBUTO SOBRE EL JUEGO EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 36 del vigente Concierto Económico establece que los tributos que recaen sobre el juego tienen el carácter de tributos concertados de normativa autónoma cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco. No obstante, a continuación, el citado precepto matiza tal carácter indicando que se aplicará la misma normativa que la establecida en cada momento por el Estado en lo que se refiere al hecho imponible y sujeto pasivo.

En cuanto a la competencia para la exacción de dichos tributos, el artículo 37 del vigente Concierto Económico atribuye la misma a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando bien la autorización o bien la realización del hecho imponible, en función de la actividad de juego de que se trate, deba realizarse o se realice, respectivamente, en el País Vasco.

La presente Norma Foral viene así a dar respuesta a la necesidad de regulación de esta materia por parte de las instituciones forales.

La presente Norma Foral aborda la regulación del Tributo sobre el Juego teniendo en cuenta diversos aspectos, entre los que cabe destacar los siguientes:

a) Necesidad de establecimiento del ámbito competencial normativo y de exacción de las Instituciones del Territorio Histórico reconociendo, de una parte, lo dispuesto en el Concierto Económico y, de otra, las normas armonizadas en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria para la atribución de las citadas competencias dentro del País Vasco.

b) Atención a la normativa sustantiva del juego en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca.

La competencia sobre la regulación del juego en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, corresponde en exclusiva a ésta a tenor del artículo 10.35 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, con excepción de las Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas.

En desarrollo de dicha competencia exclusiva, la Comunidad Autónoma Vasca ha dictado diversas disposiciones reguladoras del juego entre las que cabe destacar la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, reguladora del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Límites y antecedentes de la regulación tributaria sobre el juego contenidos en el Concierto y la normativa de régimen común.

Como ya se ha indicado, en la regulación del tributo sobre el juego se debe aplicar la misma regulación que en régimen común en lo que se refiere a hecho imponible y sujeto pasivo.

d) Jurisprudencia a considerar sobre la tributación sobre el juego, atendiendo en especial a la sentencia del Tribunal Constitucional de 10 de noviembre de 1994 y a la del Tribunal Supremo de 28 de diciembre de 1998, en las que se declara de forma indubitada el carácter de impuesto de la tasa sobre los juegos de suerte, envite o azar regulada en el Real Decreto-Ley 16/1977.

Ohar hauek eginda, Foru Arau honen edukia aztertzeari ekin behar zaio. Araua 17 artikulutan, xedapen indargabetzaile batean eta amaierako bi xedapenetan egituraturik dago.

1. artikulua araugaia den figuraren zeharkako izaera aitortzen du eta haren xedea zehazten du.

2. artikulua arautegiaren aplikazio eremua eta haren ordainazpenerako eskumena ezartzen ditu, zergaren kudeaketa egokia egiteko hain beharrezkoak direnak.

3. artikulua zergapeko egitatea arautzen du. Honek, aurretik adierazi den bezala, lotura estua du Euskal Autonomia Erkidegoak jokoaren gaian emandako funtsezko arauketarekin, gai honetan izandako aurrerakuntza teknologikoen eragina bistatik galdu gabe.

4. artikulua araugaia den zergaren kasuan aplikatzeko diren salbuespenak –subjektiboak gehienak- azaltzen ditu. Horiek bakar-bakarrik zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioei dagozkie.

5. artikulua zergaren subjektu pasiboak zeintzuk diren zehazten du. Subjektu pasiboa zehaztearekin loturik dago 6. artikuluan zergaren erantzuleei buruz –erantzule solidarioak kasu honetan- egiten den arauketa. Erantzukizun hori joko egiten den lokal, instalazio edo guneetako enpresariei dagokie.

7. artikuluan, zerga oinarria zehazteko erregelak ematen dira; erregela orokor bat, Bat idatz zatian ematen dena, eta erregela partikular batzuk, Bi idatz zatian jasotzen direnak, bereizten dira, egiten den joko motaren arabera, eta oinarri hori zuzen zehazteko beharrezko ñabardurak jasotzen dira.

8.etik 14.era arteko artikuluetan, antolatutako edo egindako joko motaren arabera aplikatzeko diren zerga tasak arautzen dira. Alde batetik, tasa jakin bat ezarrita ez daukaten jokoetarako tasa orokor bat ezartzen da eta, beste aldetik, makina edo aparatu automatikoen ustiapenaren bidez egiten diren jokoetarako kuota finkoak zehazten dira. Honek ez du eragozten joko mota batzuetarako zerga tasa finkoak eta beste joko mota batzuetarako zerga tasa aurrerakoiak bereizterik.

Sortzapena 15. artikuluan arautzen da. Kasu honetan ere, sortzapen uea zehazteko erregela orokor bat eta makina edo aparatu automatikoen ustiapenaren bidez egiten diren jokoetarako erregela partikular bat bereizten dira.

16. artikulua zergarekin loturiko betebeharrak formalak eta ordainketa betebeharrak buruzko erregelak jasotzen ditu. Kasu honetan, horren garapenerako erregelamenduari lotzen zaio, bertan jasotzen diren funtsezko zenbait betebeharrak formal ezartzearen kalterik gabe.

17. artikulua, oro har, Zergen Foru Arau Orokorrari lotzen zaio, arauhauspene eta zigorraren kontuan. Beraz, arlo horretan, aplikatzekoak dira aipatutako Arauan jasotzen diren erregela orokorrak.

Azkenik, amaierako xedapenetan, Foru Araua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara eman ondorengo egunean indarrean jarriko dela ezartzen da.

1. artikulua.- Izaera eta xedea.

Jokoaren gaineko Zergak zeharkako izaera du eta joko jarduerak zergapetzen ditu, Foru Arau honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. artikulua.- Aplikazio eremua eta ordainazpenerako eskumena.

Bat. Foru Arau hau Euskal Herrian baimendu behar diren joko jarduerak aplikatzeko izango zaie, horiek Arabako Lurralde Historikoan egiten badira.

Bi. Arabako Foru Aldundiari dagokio Jokoaren gaineko Zergaren ordainazpenera, ondorengo kasuetan:

- Zozketak, tonbolak, apustuak eta ausazko konbinazioak direla medio egiten diren jokoetan, baldin eta haietarako baimena Euskal Herrian eman behar bada eta joko jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten badira.

- Kasinoko jokoetan, bingo jokoetan, makina edo aparatu automatikoen edo txartelen bidezko jokoetan, eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoaren barruan jasotzen den beste edozein jokoetan, baldin eta zergapeko egitatea Euskal Herrian gertatzen bada eta joko jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten badira.

Hiru. Joko jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten direla iritziko da ondorengo kasuetan:

1. Izaera orokorrez, dagozkien diru kopuruak Arabako Lurralde Historikoan jokatzen direnean.

Hechas estas consideraciones, procede pasar a analizar el contenido de la presente Norma Foral que se estructura en 17 artículos, una Disposición Derogatoria y dos Disposiciones Finales.

El artículo 1 declara la naturaleza indirecta de la figura que se regula y determina su objeto.

El artículo 2 establece el ámbito de aplicación de la normativa y la competencia para su exacción, tan necesarias estas últimas para una correcta gestión del tributo.

El artículo 3 regula el hecho imponible, intrínsecamente unido, como se ha indicado anteriormente, a la regulación sustantiva en materia de juego emanada por la Comunidad Autónoma Vasca, sin perder de vista la incidencia de los avances tecnológicos en esta materia.

El artículo 4 declara las exenciones, subjetivas en su mayoría, aplicables en el caso del tributo objeto de regulación y que afectan exclusivamente a rifas, tómbolas, apuestas y combinaciones aleatorias.

El artículo 5 determina los sujetos pasivos del tributo. Relacionado con la determinación del sujeto pasivo está la regulación contenida en el artículo 6 referido a los responsables, solidarios en este caso, del tributo, recayendo la responsabilidad en los empresarios de los locales, instalaciones o recintos donde se celebre el juego.

El artículo 7 contiene las reglas de determinación de la base imponible, distinguiendo una regla de carácter general, en su apartado Uno, y unas reglas particulares incluidas en el apartado Dos, según la modalidad de juego que se celebre e incluyendo las necesarias matizaciones para la correcta determinación de dicha base.

En los artículos 8 a 14 se regulan los tipos tributarios aplicables según la modalidad de juego organizado o celebrado, distinguiendo, por una parte, el establecimiento de un tipo general para el caso de los juegos que no tengan establecido un tipo específico y la determinación, por otra, de cuotas fijas para el caso de los juegos efectuados mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, sin perjuicio de que se realice la diferenciación de tipos impositivos fijos para algunas modalidades de juego y tipos impositivos progresivos para otras modalidades de juego.

El devengo viene regulado en el artículo 15, distinguiéndose, también en este caso, una regla general de determinación del momento del devengo y una regla particular para el devengo en el caso de los juegos efectuados mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.

El artículo 16 contiene las reglas sobre las obligaciones formales y de pago concernientes al tributo, realizando en este caso, una remisión reglamentaria para su desarrollo, sin perjuicio del establecimiento de ciertas obligaciones formales de carácter sustantivo incluidas en el mismo.

El artículo 17 realiza una remisión en bloque a la Norma Foral General Tributaria en relación con la materia relativa a las infracciones y sanciones, siendo, por tanto, aplicables en este ámbito las reglas generales contenidas en esta última.

Por último, en las Disposiciones Finales se fija la fecha de entrada en vigor de la Norma Foral al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 1.- Naturaleza y objeto.

El Tributo sobre el Juego es de naturaleza indirecta y grava las actividades de juego en los términos previstos en la presente Norma Foral.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación y competencia para la exacción.

Uno. La presente Norma Foral será de aplicación a las actividades de juego cuya autorización deba realizarse en el País Vasco, cuando su celebración tenga lugar en el Territorio Histórico de Álava.

Dos. Corresponderá a la Diputación Foral de Álava la exacción del Tributo sobre el Juego, en los siguientes supuestos:

- En los juegos mediante rifas, tómbolas, apuestas y combinaciones aleatorias, cuando, debiendo realizarse su autorización en el País Vasco, las actividades de juego se celebren en el Territorio Histórico de Álava.

- En los juegos de casino, de bingo, mediante máquinas o aparatos automáticos, mediante boletos y en cualquier otro juego incluido en el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuando realizándose el hecho imponible en el País Vasco, las actividades de juego se celebren en el Territorio Histórico de Álava.

Tres. Las actividades de juego se entenderán celebradas en el Territorio Histórico de Álava en los siguientes supuestos:

1. Con carácter general, cuando las cantidades correspondientes se jueguen en el Territorio Histórico de Álava.

2. Partikularki:

a) Kasinoko jokoetan, joko jarduerak egiten diren lokala edo establezimendua Arabako lurraldean baldin badago.

b) Bingo jokoan, joko jarduerak egiten diren aretoa, lokala edo establezimendua Arabako lurraldean baldin badago.

c) Apustuen bidezko jokoan:

- Joko jarduera apustu lokaletan edo bestelako lokal edo establezimenduetan egiten denean, horiek Arabako lurraldean baldin badaude.

- Bestela, apustuak ustiatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak edo entitateak bere egoitza fiskala Arabako lurraldean baldin badu.

d) Txartelen bidezko jokoan, txartelak erosten diren establezimenduak Arabako lurraldean baldin badaude.

e) Makina edo aparatu automatikoen bidezko jokoan, makina edo aparatua Arabako lurraldean instalatuta baldin badago.

f) Zozketa eta tonbolen bidezko jokoan, txartelak Arabako lurraldean eskaintzen badira edo, hala egokituz gero, tonbola muntatzen den merkatua, azoka edo festa Arabako lurraldean egiten bada.

g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, sustapenaren lurralde eremua Arabako Lurralde Historikoa baldin bada.

Ausazko konbinazioen bidezko jokoan sustapenaren lurralde eremuak Arabako Lurralde Historikoa gainditzen duenean:

- Entitate sustatzaileak bere egoitza fiskala Euskal Herrian izanik, hori Arabako Lurralde Historikoan baldin badago.

- Entitate sustatzailearen egoitza fiskala Euskal Herrian ez badago, jokoaren erdia edo herena hartuko da Arabako Lurralde Historikoan egindakotzat, bere eremuak Euskal Herriko lurralde historikoetako bi edo hiru barne hartzen dituen.

3. artikulua.- Zergapeko egitatea.

Jokoaren gaineko Zergaren zergapeko egitatea, ondoren aipatzen diren joko jarduerak baimentzea, antolatzea edo egitea da, edozein delarik ere horiek gauzatzen diren bidea, eskuzkoa, teknikoa, telematikoa nahiz interaktiboa:

- Kasinoko jokoak.
- Bingoa.
- Apustuak.
- Txartelak.
- Joko makinak.
- Zozketak.
- Tonbolak.
- Ausazko konbinazioak.

- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoan jasotzen den beste edozein joko.

4. artikulua.- Salbuespenak.

Jokoaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira ondorengo zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioak:

a) Baldintza hauek betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko entitateek antolatzen dituztenak:

- Interes orokorreko helburuak izatea, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarri buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Lortutako diru gutzia aipatu diren helburuak betetzera bideratzea.

- Sarien zenbateko osoa 6.000 euro baino gutxiago izatea.

b) Arabako Errepide Laguntzako Elkarateak (DYA) antolatzen dituenak.

c) Beren titulartasuna Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazioari erreserbatu edo esleiturik daukatena.

d) Egun jakinetan antolatutako tonbolak, merkatuak, azokak edo jaiak direla eta.

5. artikulua.- Subjektu pasiboak.

Bat. Dagokion administrazio baimena eman zaien pertsona fisiko edo juridikoak edo entitateak izagno dira Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

Bi. Administrazio baimenik ez izatekotan, Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasibotzat hartuko dira beren jardueren artean joko jarduerak egiten edo antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak edo entitateak.

2. En particular:

a) En los juegos de casino, cuando el local o establecimiento donde se efectúen las actividades de juego esté situado en territorio alavés.

b) En el juego del bingo, cuando la sala, local o establecimiento en el que se efectúen las actividades de juego esté situado en territorio alavés.

c) En el juego mediante apuestas:

- Si la actividad de juego se desarrolla en locales de apuestas o en otro tipo de locales o establecimientos, cuando éstos estén situados en territorio alavés.

- En otro caso, cuando la persona física, jurídica o entidad explotadora de las apuestas tenga su domicilio fiscal en territorio alavés.

d) En el juego mediante boletos, cuando los establecimientos en que se adquieran los boletos estén situados en territorio alavés.

e) En el juego mediante máquinas o aparatos automáticos, cuando la máquina o aparato esté instalada en territorio alavés.

f) En el juego mediante rifas y tómbolas, cuando los boletos o billetes se ofrezcan en territorio alavés o, en su caso, cuando tenga lugar en territorio alavés el mercado, feria o fiesta en el que se organice la correspondiente tómbola.

g) En el juego mediante combinaciones aleatorias, cuando el ámbito territorial de la promoción sea el Territorio Histórico de Álava.

En el juego mediante combinaciones aleatorias cuyo ámbito territorial de promoción exceda del Territorio Histórico de Álava:

- Si la entidad promotora tiene su domicilio fiscal en el País Vasco, cuando éste se sitúe en el Territorio Histórico de Álava.

- Si la entidad promotora no tiene su domicilio fiscal en el País Vasco, el juego se entenderá celebrado en el Territorio Histórico de Álava por mitades o por terceras partes, según que dicho ámbito abarque a dos o a tres de los Territorios Históricos del País Vasco.

Artículo 3.- Hecho imponible.

Constituye el hecho imponible del Tributo sobre el Juego la autorización, organización o celebración de las siguientes actividades de juego cualquiera que sea el medio manual, técnico, telemático o interactivo a través del que se realicen:

- Juegos de casino.
- Bingo.
- Apuestas.
- Boletos.
- Máquinas de juego.
- Rifas.
- Tómbolas.
- Combinaciones aleatorias.

- Cualquier otro juego incluido en el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 4.- Exenciones.

Estará exenta del Tributo sobre el Juego la celebración de las rifas, tómbolas, apuestas y combinaciones aleatorias siguientes:

a) Las que organicen entidades sin fines de lucro que cumplan los siguientes requisitos:

- Que persigan fines de interés general, en los términos previstos en el artículo 4 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo.

- Que destinen el importe total obtenido a la realización de los citados fines.

- Que el importe total de los premios sea inferior a 6.000 euros.

b) Las que organice la Asociación de Ayuda en Carretera (DYA) de Álava.

c) Aquéllas cuya titularidad se reserve o esté atribuida a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Las tómbolas organizadas por días, con ocasión de mercados, ferias o fiestas.

Artículo 5.- Sujetos pasivos.

Uno. Serán sujetos pasivos del Tributo sobre el Juego las personas físicas, jurídicas o entidades a quienes se haya otorgado la correspondiente autorización administrativa.

Dos. En defecto de autorización administrativa, tendrán la consideración de sujetos pasivos del Tributo sobre el Juego las personas físicas, jurídicas o entidades cuyas actividades incluyan la celebración u organización de actividades de juego.

6. artikulua.- Erantzuleak.

Jokoaren gaineko Zergaren erantzule solidarioak izango dira jokoak egiten diren lokal, instalazio edo guneetan joko jarduera bera ez den jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak edo entitateak.

7. artikulua.- Zerga oinarria.

Bat. Izaera orokorrez, hurrengo idatz zatian joko mota bakoitzerako xedatutakoaren kalterik gabe, jokalariek jokoetan parte hartzeko jartzen dituzten kopuru guztien zenbateko osoa izango da Jokoaren gaineko Zergaren zerga oinarria.

Bi. Partikularki, idatz zati honetan aipatzen diren joko jardueretan, Jokoaren gaineko Zergaren zerga oinarria ondorengoia izango da:

a) Kasinoko jokoetan, kasinoetan jokotik lortzen diren diru sarrera gordinek osatuko dute zerga oinarria. Horretarako, diru sarrera gordintzat zera hartuko da: jokotik lortutako diru sarreraren zenbateko osoaren eta jokalariei beren irabazi edo sariengatik ordaindutako kopuruen arteko diferentzia. Diru sarrera horien barruan ez da konputatuko joko egiteko erreserbatutako aretoetara sartzeko ordaintzen den kopurua.

b) Bingo jokoan, zerga oinarria jokalariek bingo kartoiak erosteko ordaindutako kopuru osoa izango da, inolako kenkaririk gabe.

c) Apustuen bidezko jokoan, zerga oinarria apustuaren jarritako diru kopuruen batura osoaren eta jokoan parte hartzen dutenek lortutako sariaren zenbateko osoaren arteko diferentzia izango da.

Hala ere, pilota saioak, traineruen estropadak edo baserritar giroko edo bertoko beste kirol edo lehiaketa ekintza batzuk antolatzen direla-eta egiten diren apustuaren, zerga oinarria urtean antolatutako saioen kopurua izango da, baldin eta apustuak bakar-bakarrik jarduera horiek egiten diren lekuan egiten badira eta kanpoko apustuekin batzen ez badira.

d) Txartelen bidezko jokoan, zerga oinarria jokalariek txartel horiek erosteko ordaindutako kopuru osoa izango da, inolako kenkaririk gabe. Txartelen bidezko jokoaren administrazioaren baimenik gabe antolatu edo eginez gero, jaulkitako txartelen prezioaren zenbateko osoa hartuko da zerga oinarritzat.

e) Makina edo aparatu automatikoen ustiapenaren bidezko jokoan, zerga oinarria ustiatzen diren mota bakoitzeko ("B" edo "C") makina edo aparatu automatikoen kopurua izango da.

f) Zozketa eta tonbolen bidezko jokoan, zerga oinarria eskainitako txartelen zenbateko osoa izango da.

g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, zerga oinarria eskainitako sariaren balioa izango da. Horretarako, sariaren balioa merkatu balioa hartuko da, saria eskura jartzeko beharrezkoak diren gastu guztien batura ere barne hartuta.

8. artikulua.- Zerga tasa orokorra.

Hurrengo artikuluetan joko mota bakoitzerako xedatutakoaren kalterik gabe, zerga tasa orokorra ehuneko 20 izango da.

9. artikulua.- Kasinoko jokoetan aplikatzeko zerga tasa.

Kasinoko jokoetan urteko tarifa hau aplikatuko da:

KOPURU HAUEN ARTEKO ZERGA OINARRIAREN ZATIA	APLIKATZEKO TASA. EHUNEKOA
0 - 1.890.000,00 euro	20
1.890.000,01 - 6.300.000,00 euro	35
6.300.000,00 euro baino gehiago	50

Tarifen ezarritako mailak elkarretatik apartekoak dira; beraz, zerga oinarriaren zati bakoitza dagokion mailarako ezarritako tasaren pean zergapetuko da.

10. artikulua.- Apustuen bidezko jokoetan aplikatzeko zerga tasa.

Bat. Apustuen bidezko jokoaren zerga tasa, ondorengo idatz zatian xedatutakoaren kalterik gabe, ehuneko 10 izango da.

Bi. Idatz zati honetan aipatzen diren kirol edo lehiaketa ekintzetan oinarritutako barne apustuaren, ondorengo kuota bereziak aplikatuko dira:

a) Pilota saioak eta traineruen estropadak antolatzen direla-eta egiten diren apustuak: antolatutako saio bakoitzeko kuota finko baten arabera zergapetuko dira. Kuota finko hori 100 eurokoa izango da urtean zehar saioen kopurua 50 baino gutxiagoa denean, eta 150 eurokoa horien kopurua urtean zehar 50 edo gehiago denean.

Artículo 6.- Responsables.

Serán responsables solidarios del Tributo sobre el Juego las personas físicas, jurídicas o entidades que ejerzan en los locales, instalaciones o recintos donde se celebren los juegos, una actividad económica distinta a la propia actividad de juego.

Artículo 7.- Base imponible.

Uno. Con carácter general, sin perjuicio de lo establecido en el apartado siguiente para cada modalidad de juego, la base imponible del Tributo sobre el Juego estará constituida por el importe total de las cantidades que los jugadores dediquen a su participación en los juegos.

Dos. En particular, en las actividades de juego que se relacionan en este apartado, la base imponible del Tributo sobre el Juego será la siguiente:

a) En los juegos de casino, la base imponible vendrá constituida por los ingresos brutos que en los casinos se obtengan procedentes del juego. A estos efectos, se entenderá por ingresos brutos la diferencia entre el importe total de los ingresos obtenidos procedentes del juego y las cantidades satisfechas a los jugadores por sus ganancias o premios. No se computará en los citados ingresos la cantidad que se abone por la entrada en las salas reservadas para el juego.

b) En el juego del bingo, la base imponible vendrá constituida por la suma total de lo satisfecho por los jugadores por la adquisición de los correspondientes cartones, sin ninguna deducción.

c) En el juego mediante apuestas, la base imponible vendrá constituida por la diferencia entre la suma total de las cantidades apostadas y el importe de los premios obtenidos por los participantes en el juego.

No obstante, en las apuestas celebradas con motivo de la organización de jornadas de pelota, de regatas de traineras o de otras actividades deportivas o de competición de carácter rural o autóctono, la base imponible vendrá constituida por el número de jornadas organizadas anualmente, siempre que las apuestas se celebren exclusivamente en el lugar donde estas actividades se realicen y no se totalicen con apuestas externas.

d) En el juego mediante boletos, la base imponible vendrá constituida por la suma total de lo satisfecho por los jugadores por la adquisición de los correspondientes boletos, sin ninguna deducción. En el caso de organización o celebración del juego mediante boletos sin autorización administrativa, se tomará como base imponible la suma total del precio de los boletos emitidos.

e) En el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, la base imponible vendrá constituida por el número de máquinas o aparatos automáticos de cada tipo, "B" o "C", que sean objeto de explotación.

f) En el juego mediante rifas y tómbolas, la base imponible vendrá constituida por la suma total de los billetes o boletos ofrecidos.

g) En el juego mediante combinaciones aleatorias, la base imponible vendrá constituida por el valor de los premios ofrecidos. A estos efectos se entenderá por valor de los premios el valor de mercado de los mismos, incluyendo asimismo la suma de todos los gastos necesarios para la puesta a disposición del premio.

Artículo 8.- Tipo tributario general.

Sin perjuicio de lo establecido en los artículos siguientes para cada modalidad de juego, el tipo tributario general será el 20 por 100.

Artículo 9.- Tipo tributario aplicable en los juegos de casino.

En los juegos de casino se aplicará la siguiente tarifa anual:

PORCIÓN DE LA BASE IMPONIBLE COMPRENDIDA ENTRE	TIPO APLICABLE.PORCENTAJE
0 - 1.890.000,00 euros	20
1.890.000,01 - 6.300.000,00 euros	35
Más de 6.300.000,00 euros	50

Los tramos establecidos en la tarifa son independientes, de manera que cada parte de la base imponible tributará según el tipo establecido para cada respectivo tramo.

Artículo 10.- Tipo tributario aplicable en los juegos mediante apuestas.

Uno. El tipo tributario del juego mediante apuestas, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente, será el 10 por 100.

Dos. En las apuestas internas basadas en las actividades deportivas o de competición relacionadas en este apartado se aplicarán las siguientes cuotas específicas:

a) Apuestas celebradas con motivo de la organización de jornadas de pelota y de regatas de traineras, que tributarán mediante una cuota fija por cada jornada organizada de 100 euros, cuando el número de jornadas durante el año sea inferior a 50, o de 150 euros cuando su número durante el año sea igual o superior a 50.

b) Baserritar giroko edo bertoko beste kirol edo lehiaketa ekin-tza batzuk direla-eta, hala nola idi probak, aizkol jokoa, segalari probak edo harri-jasotzea, egiten diren apustuak: antolatutako saio bakoitzeko kuota finko baten arabera zergapetuko dira. Kuota finko hori 20 eurokoa izango da urtean zehar saioen kopurua 50 baino gutxiagoa denean, eta 30 eurokoa horien kopurua urtean zehar 50 edo gehiago denean.

11. artikulua.- Txartelen bidezko jokoetan aplikatzeko zerga tasa.

Txartelen bidezko jokoaren zerga tasa ehuneko 15 izango da.

12. artikulua.- Makina edo aparatu automatikoen ustiapenaren bidezko jokoetan aplikatzeko kuota finkoak.

Bat. Zori jokoak egiteko gai diren makina edo aparatu automatikoen ustiapenaren bidezko jokoetan, makina edo aparatu bakoitzeko kuota finko bat eskatuko da.

Bi. Kuota finkoak honako hauek izango dira:

A) "B" motako makinak, edo saridun jolas makinak:

a) Urteko kuota: 2.750 euro.

b) Bi jokalarik edo gehiagok aldi berean parte har dezaketen "B" motako makina edo aparatu automatikoak badira, eta haietako baten jokoa beste jokalariek egiten duten jokatik apartekoa baldin bada, ondorengo kuotak aplikatuko dira:

- Bi jokalarirentzako makina edo aparatuak: 5.500 euro.

- Hiru jokolari edo gehiagorentzako makina edo aparatuak: 5.500 euro gehi kopuru horren ehuneko 15 bitik gorako jokolari bakoitzeko.

B) "C" motako makinak edo zori makinak:

a) Urteko kuota: 4.025 euro.

b) Bi jokalarik edo gehiagok aldi berean parte har dezaketen "C" motako makina edo aparatu automatikoak badira, eta haietako baten jokoa beste jokalariek egiten duten jokatik apartekoa baldin bada, ondorengo kuotak aplikatuko dira:

- Bi jokalarirentzako makina edo aparatuak: 8.050 euro.

- Hiru jokolari edo gehiagorentzako makina edo aparatuak: 8.050 euro gehi kopuru horren ehuneko 15 bitik gorako jokolari bakoitzeko.

Hiru. Ustiapenerako baimena jasotzen den urtean, edo haren etendura, ezeztatzea edo iraungipena gertatzen den urtean, kuota hiruhileko naturalez hainbanatuko da, baimenetik aurrera edo baja, etendura edo ezeztatzea arte kontatuta.

13. artikulua.- Zozketa eta tonbolen bidezko jokoetan aplikatzeko zerga tasa.

Zozketa eta tonbolen bidezko jokoaren zerga tasa, izaera orokorrez, ehuneko 15 izango da.

14. artikulua.- Ausazko konbinazioen bidezko jokoetan aplikatzeko zerga tasa.

Ausazko konbinazioen bidezko jokoaren zerga tasa ehuneko 15 izango da.

15. artikulua.- Sortzapena.

Bat. Jokoaren gaineko Zerga, izaera orokorrez, jokoa baimentzean eta, hala gertatuz gero, hura antolatzean edo egitean sortuko da.

Bi. Makina edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren kasuan, haren ustiapena baimenduta gero, eta baimen horren urtearen ondorengo urteei dagokienez, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da zerga.

Baimenari urtarilaren 1ean administrazio baja ematekotan, zergaren sortzapena ez da gertatuko baimen hori berritzen den arte.

Makina baten orde berri bat, mota berekoa eta antzeko ezaugarriak dituen, aldi berean ipintzeak ez du kuota berririk sortuko.

16. artikulua.- Betebehar formalak eta zergaren ordainketa.

Bat. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, erregelamendu bidez ezartzen diren aitorpenak edo autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte zerga horrengatik, esandako aitorpena egiteko garaian dagokien zerga zorra zehaztu eta, kasu bakoitzerako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak finkatzen dituen leku, era eta epeetan haren sarrera egin.

Bi. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek zerga administrazioari edozein gorabehera jakinarazi beharko diote, hala nola bajak, etendurak, ezeztatzeak, aldi baterako itxeak, ezgaitzeak, deko-

b) Apuestas celebradas con motivo de la organización de otras actividades deportivas o de competición de carácter rural o autótomo, tales como arrastre de piedra, aizkolaris, segalaris o levantamiento de piedra, que tributarán mediante una cuota fija por cada jornada organizada de 20 euros, cuando el número de jornadas durante el año sea inferior a 50, o de 30 euros cuando su número durante el año sea igual o superior a 50.

Artículo 11.- Tipo tributario aplicable en los juegos mediante boletos.

El tipo tributario del juego mediante boletos será el 15 por 100.

Artículo 12.- Cuotas fijas aplicables en los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.

Uno. En los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar, será exigible una cuota fija por cada máquina o aparato.

Dos. Las cuotas fijas serán las siguientes:

A) Máquinas tipo "B" o recreativas con premio:

a) Cuota anual: 2.750 euros.

b) Cuando se trate de máquinas o aparatos automáticos tipo "B" en los que puedan intervenir dos o más jugadores de forma simultánea y siempre que el juego de cada uno de ellos sea independiente del realizado por otros jugadores, serán de aplicación las siguientes cuotas:

- Máquinas o aparatos de dos jugadores: 5.500 euros.

- Máquinas o aparatos de tres o más jugadores: 5.500 euros más un 15 por 100 de esta cantidad por cada jugador que exceda de dos.

B) Máquinas tipo "C" o de azar:

a) Cuota anual: 4.025 euros.

b) Cuando se trate de máquinas o aparatos automáticos tipo "C" en los que puedan intervenir dos o más jugadores de forma simultánea y siempre que el juego de cada uno de ellos sea independiente del realizado por otros jugadores, serán de aplicación las siguientes cuotas:

- Máquinas o aparatos de dos jugadores: 8.050 euros.

- Máquinas o aparatos de tres o más jugadores: 8.050 euros más un 15 por 100 de esta cantidad por cada jugador que exceda de dos.

Tres. En el año en que se obtenga la autorización o permiso de explotación, o en el que se produzca su suspensión, revocación o extinción, la cuota se prorrateará por trimestres naturales contados desde la autorización o hasta la baja, suspensión o revocación.

Artículo 13.- Tipo tributario aplicable en los juegos mediante rifas y tómbolas.

El tipo tributario del juego mediante rifas y tómbolas será, con carácter general, el 15 por 100.

Artículo 14.- Tipo tributario aplicable en los juegos mediante combinaciones aleatorias.

El tipo tributario del juego mediante combinaciones aleatorias será el 15 por 100.

Artículo 15.- Devengo.

Uno. El Tributo sobre el Juego se devengará, con carácter general, con la autorización y, en su caso, con la organización o celebración del juego.

Dos. Tratándose del juego mediante máquinas o aparatos automáticos, una vez autorizada su explotación y con respecto a los años siguientes al de dicha autorización, el tributo se devengará el 1 de enero de cada año.

En los casos de baja administrativa de la autorización a fecha 1 de enero, no se producirá el devengo del tributo hasta la rehabilitación de dicha autorización.

La sustitución de una máquina por otra nueva del mismo tipo y condiciones similares, realizada de forma simultánea, no devengará nueva cuota.

Artículo 16.- Obligaciones formales y pago del tributo.

Uno. Los sujetos pasivos del Tributo sobre el Juego estarán obligados a presentar por dicho tributo las declaraciones o autoliquidaciones que reglamentariamente se establezcan, determinando en el momento de efectuar dicha declaración la deuda tributaria correspondiente, procediendo a su ingreso en los lugares, formas y plazos que fije, para cada caso, el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Dos. Los sujetos pasivos del Tributo sobre el Juego deberán comunicar a la Administración tributaria cualquier incidencia, tales como bajas, suspensiones, revocaciones, clausuras temporales, inha-

misoak edo antzeko beste batzuk, baita subjektu pasiboaren datu pertsonaletan izandako aldaketak ere, haren pean dauden jarduerak egiteko emandako baimenekin loturikoak.

Hiru. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, beren kasuan eta zehazten diren joko motetarako, erregelamenduz ezartzen diren erregistro liburuak eraman beharko dituzte.

Lau. Bide tekniko, telematiko edo interaktiboan bitartez parte hartzen den kasuetan, bide horiek zerga oinarria kalkulatzeko zehaztasuna segurtatzeko beharrezko jardunbidea edo kontrol elementuak eduki beharko dituzte.

17. artikulua.- Zigorrak.

Foru Arau honetan araututako Jokoaren gaineko Zergaren kontrako arau-hausteen kalifikazioa eta zigorra, Zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera egingo dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Arau honen Amaierako Lehenengo Xedapenean xedatutakoaren kalterik gabe, indargabeturik geratzen dira Foru Arau honetan xedatutakoaren aurka doazen xedapen guztiak eta, bereziki, Jokoaren gaineko Tasa Fiskalaren Foru Araua, 1981eko maiatzaren 31eko, eta 7/1996 Foru Araua, martxoaren 13koa, Txartelen bidezko Jokoaren Tasa Fiskala arautzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. Foru Arauaren erregelamendu bidezko garapena.

Foru Arau hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren xedapenak onartzen ez diren bitartean, aplikatzekoak izaten jarraituko dute Foru Arau hau indarrean sartzen den egunean indarrean daudenean. Bereziki, eta une horretara arte, aplikatzekoak izango da, baldin eta Foru Arau honetan xedatutakoaren aurka ez badao, Jokoaren gaineko Tasa Fiskalaren Foru Arauak, 1981eko maiatzaren 31koak, 3. artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoetan, 7. artikuluan, 17. artikuluan, 18. artikuluan, 20. artikuluan, 21. artikuluan eta 22. artikuluan xedatutakoa, baita 7/1996 Foru Arauak, martxoaren 13koak, Txartelen bidezko Jokoaren Tasa Fiskala arautzen duenak, 7. artikuluan xedatutakoa ere.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 15a.- Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1.074

Arabako Biltzar Nagusiek 2005eko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, aurkeratu dute nor izango den Arabako Biltzar Nagusien ordezkaria Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte-kontseiluan. Ordezkarri hori Isabel Martínez Díaz de Zuazua andrea izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 15a.- Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1.070

Iragarkia

Juan Carlos Prieto San Vicente jauna, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldea-ko bozeramaileak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa, zeinaren bidez proposatzen duen Osakidetza ospitale-tara analisiak egiteko eramaten dituzten jaioak garraiatzeko bideak kontrola ditzan, eta kontzeptu horregatik sortzen diren gastuak Eusko Jauriaritzak ordaindu ditzan aurkeztu du.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetakoa bat da, eta beraz, artikulua horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabalitzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 15a.-Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.

bilitaciones, comisos u otros supuestos similares, así como los cambios en los datos personales del sujeto pasivo, sobre las autorizaciones concedidas para la realización de las actividades sujetas al mismo.

Tres. Los sujetos pasivos del Tributo sobre el Juego deberán llevar los libros registros que, en su caso y para las modalidades de juego que se determinen, se establezcan reglamentariamente.

Cuatro. En los supuestos de participación a través de medios técnicos, telemáticos o interactivos, estos medios deberán contener el procedimiento o los elementos de control necesarios que garanticen exactitud en la determinación de la base imponible.

Artículo 17.- Sanciones.

La calificación y sanción de las infracciones tributarias del Tributo sobre el Juego regulado en la presente Norma Foral se efectuarán con arreglo a lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Final Primera de esta Norma Foral, quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en la presente Norma Foral y, en particular, la Norma Foral de la Tasa Fiscal sobre el Juego de 31 de mayo de 1981 y la Norma Foral 7/1996, de 13 de marzo, reguladora de la Tasa Fiscal del Juego mediante Boletos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Desarrollo reglamentario de la Norma Foral.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral.

En tanto no hayan sido aprobadas las disposiciones a que se refiere el párrafo anterior, seguirán siendo de aplicación las vigentes en la fecha de entrada en vigor de la presente Norma Foral. En especial, y hasta dicho momento, será de aplicación, siempre que no contradiga lo establecido en esta Norma Foral, lo dispuesto en los párrafos segundo y tercero del artículo 3, artículo 7, artículo 17, artículo 18, artículo 20, artículo 21 y artículo 22 de la Norma Foral de la Tasa Fiscal sobre el Juego de 31 de mayo de 1981, así como lo establecido en el artículo 7 de la Norma Foral 7/1996, de 13 de marzo, reguladora de la Tasa Fiscal del Juego mediante Boletos.

Segunda. Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2005.-La Presidenta, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1.074

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 14 de febrero de 2005, han procedido a la elección del representante de las Juntas Generales de Álava en el Consejo Social de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, elección que recayó en doña Isabel Martínez Díaz de Zuazua.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2005.- La Presidenta, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1.070

Anuncio

Don Juan Carlos Prieto San Vicente, Portavoz del Grupo Juntero Socialistas Vascos, presenta Moción para debate en pleno, por la que se propone que Osakidetza controle los medios de transporte de los fluidos que son llevados a los centros hospitalarios para su análisis, y que el Gobierno Vasco se haga cargo de los gastos originados por este concepto.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un periodo de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2005.- La Presidenta, MARÍA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA.